

Euskaltzaindiaren Mintzola deialdia (2026)

*euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko
gradu- eta master-amaierako lanak saritzeko*

Euskaltzaindiak, Mintzola proiektuaren bidez, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko gradu- eta master-amaierako hamar lan saritzeko deialdia argitaratu zuen 2025eko azaroan. Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktoretza-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hori aitortzea, eta unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta, euskaraz egiten den ahozko jarduna ikergai gisa aukeratu izana saritzea da deialdi honen helburua. Denera, hamar eskaera aurkeztu dira deialdi honetan gradu-amaierako zazpi lanen egitasmoekin eta master-amaierako beste hiru lanen proposamenekin batera.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ikerketaren helburuen egokitzapena Mintzolak zehaztuta dituen iker-lerroetara.
- GRAL/MALen kalitatea: ikerketa-gaia eta helburua ondo zehaztuta egotea. Metodologia egokia izatea eta ondo garatua egotea. Lana argi eta ondo idatzita eta egituratua egotea.
- GRAL/MALen garrantzia eta originaltasuna: lanak jakintzari egindako ekarpena, maila teorikoan zein metodologikoan egindako berrikuntzak. Ikuspegi interesgarria eskaintzea eta etorkizunerako lan ildoak irudikatzea.

Epaimahaiak erabaki du ondoko bederatzi egitasmoak saritzea:

1. *Orioko euskararen bilakaera fonologikoaren azterketa*

Egilea: Aidé Elustondo Ferrera

2. *Aisialdi antolatuaren eta euskararen erabilera informalaren arteko elkarreragina: kasu-azterketa*

Egilea: Camila Utrera Di Michele

3. *Ahoskeraren lekua irakaskuntzan: euskara bigarren hizkuntza gisa helduaroan*

Egilea: Izaro Urreta Elizegi

4. *Eskola-inguruneke ahozko interakzioetan euskararen erabilera eta hizkuntza-hautuak: haur hezkuntzako 4 urteko gelako kasu-azterketa*

Egilea: Libe Miner Astaburuaga

5. Dokumentazioa eta deskribapena: Ahotsak.eus eta ikerlanak alderatzen Busturialdeko euskararen kasuan

Egilea: Martin López Arandia

6. Euskara eta emozioak txirikordatuz: larrialdiko harrera-zentroetan artatutako gazte migratzaileak euskarara hurbiltzeko esku-hartze programa

Egilea: Saioa Makazaga Urruzola

7. Euskararen ahoskerari eta prosodiari EAEko Bigarren Hezkuntzan ematen (ez) zaion lekua: irakasleen jarduna aztergai

Egilea: Garazi Irastorza Arza

8. Eremu ez euskaldunak: nola landu ahozkotasuna eskolan?

Egilea: Maddi Ormazabal Sudupe

9. Hitzetik oholtzara: euskararen erabilera sustatzeko antzerkian oinarrituriko proposamen didaktikoa

Egilea: Uxue Cárdenas Osés

Bilbon, 2025eko maiatzaren 22an.